# BIBLIA EDO TESTAMENTU ZAR ETA BERRIA

## AITA FRAY JOSÉ ANTONIO DE URIARTEC



© Marjinalia Bilduma
1999. urtea
Lege-Gordailua: SS-1318/99

# BIBLIA

EDO

**TESTAMENTU ZAR ETA BERRIA**

AITA FRAY JOSÉ ANTONIO DE URIARTEC

LATIÑEZCO VULGATATIC LEMBICICO ALDIZ

**GUIPUZCOACO EUSCARARA ITZULIA.**

LUIS-LUCIANO BONAPARTE PRINCIPEAC

ETA DON JOSÉ ANTONIO DE AZPIAZU
GUIPUZCOATARRAC

LAGUNDURIC.

LONDRESEN.

1859.

# GENESISCO LIBURUA.

## I. Cap.

ASIERAN ecerezetic eguin cituen Jaungoicoac cerua eta lurra.

2 Baña lurra cegoen moldacaitza eta utfa, eta illuntafunac eftaltzen zuten leiceco gaña: eta Jaungoicoaren Efpiritua cebillen uren gañean.

3 Efan zuen bada Jaungoicoac: Izan bedi eguiña arguia. Eta arguia izan zan eguiña.

4 Eta icufi zuen Jaungoicoac ona zala arguia: eta berecitu zuen arguia illuntafunetatican.

5 Eta arguiari deitu cion, Eguna; eta illuntafunai, Gaua: eta arratfalde eta goizarequin eguin zan lembicico eguna.

6 Efan ere zuen Jaungoicoac: Eguin bedi firmamentua uren erdian: eta berecitu bitza urac uretatic.

7 Eta eguin zuen Jaungoicoac firmamentua, eta berecitu cituen firmamentuaren azpian ceuden urac, firmamentuaren gañean ceudenetatic. Eta ala eguin zan.

8 Eta firmamentuari deitu cion Jaungoicoak, Cerua: eta arratfalde eta goizarequin eguin zan bigarren eguna.

9 Baitaere efan zuen Jaungoicoac: Bildur bitez toqui batean ceruaren azpian dauden urac: eta aguertu bedi legorra. Eta ala eguin zan.

10 Eta legorrari deitu cion Jaungoicoac, Lurra, eta uren biltzarreai deitu cien, Itfafoac. Eta icufi zuen Jaungoicoac ona zala.

11 Eta efan zuen: Eman beza lurrac belar berdea eta acia dacarrena, eta zuaitz frutu emalleac, ematen dutenac frutua beren moten araura, eta beren acia beretan izan bedi lurraren gañean. Eta ala eguin zan.

12 Eta eman zuen lurrac belar berdea, eta acia cecarrena bere motaren araura, eta zuaitz frutua cecarrena, eta bacoitzac acia zuena bere motaren araura. Eta icufi zuen Jaungoicoac ona zala.

13 Eta arratfalde eta goizarequin eguin zan irugarren eguna.

14 Efan zuen berriz Jaungoicoac: Eguin bitez arguicariac ceruco firmamentuan, berecitzeco eguna gauetic, eta izan ditecen demboren, eta egunen eta urteen ezagungarriac:

15 Diftia dezaten ceruco firmamentuan, eta arguitu dezaten lurra. Eta ala eguin zan.

16 Eta eguin cituen Jaungoicoac arguicari andi bi: arguicari andiagoa, eguna arguitzeco; eta arguicari chiquiagoa, gaua arguitzeco; eta izarrac.

17 Eta paratu cituen ceruco firmamentuan, diftia cezaten lurraren gañean,

18 Eta arguitu citzaten eguna eta gaua, eta berecitu cezaten arguia illuntafunetatican. Eta icufi zuen Jaungoicoac ona zala.

19 Eta eguin zan arratfalde eta goizarequin laugarren eguna.

20 Efan ere zuen Jaingoicoac: Eguin bitzate urac anima bicico arraftacariac, eta egaztiac lurraren gañean ceruco firmamentuaren azpian.

21 Ecerezetic eguin cituen bada Jaungoicoac bale andiac, eta beren moten araura uretan forturicaco anima bicia duten eta muguitzen diran guztiac, eta egazti guztiac beren moten araura. Eta icufi zuen Jaungoicoac ona zala.

22 Eta bedeincatu cituen Jaingoicoac, efaten zuela: Aci, eta ugaritu zaitezte, eta bete itzatzute itfafoco urac: eta ugaritu bitez egaztiac lurraren gañean.

23 Eta arratfalde eta goizarequin eguin zan bofgarren eguna.

24 Efan zuen ere Jaungoicoac: Eguin bitza lurrac anima bicia bere motan, zamariac, eta arraftacariak, eta lurreco abereac beren moten araura. Eta ala eguin zan.

25 Eta eguin cituen Jaungoicoac lurreco abereac beren moten araura, eta zamariac, eta lurreco arraftacari guztiac bere motan. Eta icufi zuen Jaungoicoak ona zala,

26 Eta efan zuen: Eguin dezagun guizona gure antz eta irudira: eta aguindu bizaye itfafoco arrayai, eta ceruco egaztiai, eta abereai, eta lur guztiari, eta lurrean muguitzen dan arraftacari guztiari.

27 Eta ecerezetic eguin zuen Jaungoicoac guizona bere irudira: Jaungoicoaren irudira eguin zuen: eguin cituen guizafemea eta emacumea.

28 Eta bedeincatu cituen Jaungoicoac, eta efan zuen: Aci, ta ugaritu zaitezte, eta bete ezazute lurra, eta menderatu ezazute, eta aguindu zayezute itfafoco arrayai, eta ceruco egaztiai, eta lurraren gañean muguitzen diraden abere guztiai.

29 Eta Jaungoicoac efan zuen: Ona non eman dizutedan lurraren gañean acia dacarren belar

guztia, eta bere motaren acia berengan duten zuaitz guztiac, izan ditecen zuen janaria:

30 Eta lurreco abere guztiac, eta ceruco egazti guztiac, eta lurrean muguitzen diran guztiac, eta ceñetan dan anima bicia iduqui dezaten jateco. Eta ala eguin zan.

31 Eta icufi cituen Jaungoicoac eguin cituen gauza guztiac: eta ciraden chit onac. Eta arratfalde eta goizarequin eguin zan feigarren eguna.

## II. Cap.

GUELDITU ciraden bada bucatuac cerua eta lurra, eta beren apainduri guztia.

2 Eta ofotu zuen Jaungoicoac zazpigarren egunean bere lan eguin zuena: eta atfeden zuen zazpigarrenean eguin cituen lan guztietatican.

3 Eta bedeincatu zuen zazpigarren eguna; eta fantutu zuen: ceren beretan utzi cien Jaungoicoac ofoz bucatu artean eguin cituen lan guztiai.

4 Au da ceruen eta lurraren jatorria, eguiñac izandu ciranean, Jaun Jaungoicoac eguin cituen egunean cerua eta lurra:

5 Eta campoco landare guztiac lurrean erne baño lenago, eta lurreco belar guztia moteatu baño

lenago: ceren oraindican etzuen euriric eguin Jaun Jaungoicoac lurraren gañean; etzan ere guizonic lurra landutzeko:

6 Baña lurretican igotzen zan iturri bat, lurraren gañ guztia erregatzen zuena.

7 Eguin zuen bada Jaun Jaungoicoac guizona lurrezco loyarequin, eta bota cion bere arpeguira bicitzaco afnafa, eta guelditu zan guizona anima biciarequin.

8 Jarri zuen berriz Jaun Jaungoicoac afieratican gozotafuneco paradifua: ceñean ipiñi zuen eguin zuen guizona.

9 Eta Jaun Jaungoicoac emaneraci cion lurrari zuaitz gucia beguiz ederra, eta jateco gozoa: baitaere bicitzaco zuaitza paradifuaren erdian, eta oneco eta gaitzeco jaquinduriaren zuaitza.

10 Eta ibai bat ateratzen zan gozotafuneco toquitican paradifua erregatzeco, andic lau zati eguiten zana.

11 Batari deritza Fifon: au da ingurutzen duena Hevilatco erri guztia, non jayotzen dan urrea.

12 Eta toqui artaco urrea chit ederra da: an arquitzen da bdelioa, eta oniz arria.

13 Eta bigarren ibayaren icena Gehon: au da ingurutzen duena Etiopiaco lur guztia.

14 Irugarren ibayaren icena berriz, Tigris: au dijoa Afirioen alderontz. Eta laugarren ibaya da Eufrates.

15 Eraman zuen bada Jaun Jaungoicoac guizona, eta jarri zuen gozotafuneco paradifuan, landu eta zaitu cezan:

16 Eta aguindu cion efaten ciola: Jan ezazu paradifuco zuaitz gucietatic:

17 Oneco eta gaitzeco jaquinduriaren zuaitzetic ordea ez ezazu jan. Ceren beretatican jaten dezun edoceñ egunean, ilco cera.

18 Efan ere zuen Jaun Jaungoicoac: Ez da ongui guizona bacarric egotea: eguin zayogun bere antzeco laguna.

19 Eguiñic bada Jaun Jaungoicoac lurrarequin lurrecoa abere guztiac, eta ceruco egazti guztiac, eraman cituen Adan gana, icufi cezan cer icen ipiñico cien: ceren Adanec abere bici guztiari ipiñi cion icena, ori da bere icena.

20 Eta deitu cien Adanec beren icenaquin abere guztiai, eta ceruco egazti guztiai, eta lurreco pifti guztiai: Adanentzat ordea etzan arquitzen beraren antzeco lagunic.

21 Argatic Jaun Jaungoicoac lo pifu batean ipiñi zuen Adan: lo onetan cetzala, quendu cion fayets ezur bat, eta bete zuen araguiz onen lecua.

22 Eta eguin zuen Jaun Jaungoicoac emacumea, Adani quendu cion fayets ezur onequin: eta eraman zuen Adan gana.

23 Eta efan zuen Adanec: Au da nere ezurren ezurra, eta nere araguiaren araguia: oni deituco zayo Guizaemea, ceren Guizaarra gaindican izan dan artua.

24 Argatic utzico ditu guizonac bere aita, eta ama, eta itfatfico zayo bere emazteari: eta izango dirade bi aragui batean.

25 Ceuden berriz biac larrugorrian, au da, Adan eta bere emaztea: eta etziran lotfatzen.

III. Cap.

BAÑA fuguea zan Jaun Jaungoicoac eguin cituen lurreco abere guztiac baño marrajoagoa. Onec efan cion emacumeari: ¿Cergatic aguindu dizute Jaungoicoac ez dezazutela jan paradifuco zuaitz gucietatic?

2 Ceñi erantzun cion emacumeac: Paradifuan dauden zuaitzetaco frututic, jaten degu:

3 Baña paradifuaren erdian dagoen zuaitzeco frututic, aguindu cigun Jaungoicoac ez jateco, eta uquituric ere berari ez eguiteco, ill ez gaitecen.

4 Efan cion orduan fugueac emacumeari: Iñolaere etzerate illco.

5 Badaqui ecen Jaungoicoac artatic jaten dezuten edoceñ egunean, idiquico diradela zuen beguiac: eta izango cerate jaungoicoac becelacoac, daquizutela ona eta gaitza.

6 Icufi zuen bada emacumeac zuaitza ona zala jateco, eta beguientzat ederra, eta irudiz gozagarria: eta artu zuen bere frututic, eta jan zuen: eta eman cion bere fenarrari, ceñac ere jan zuen.

7 Eta zabaldu ciran bien beguiac: eta ezagutu zutenean larrugorrian ceudela, jofi cituzten picu ofto batzuec, eta eguin cituzten berentzat mantalac.

8 Eta aditu zutenean Jaun Jaungoicoaren paradifuan cebillenaren boza airean egüerdi oftean, ezcutatu ciran Adan eta bere emaztea Jaun Jaungoicoaren beguietatic paradifuco zuaitzen erdian.

9 Eta deitu cion Jaun Jaungoicoak Adani, eta efan cion: ¿Non cera?

10 Berac erantzun zuen: Aditu det zure boza paradifuan: eta beldur izan naiz, larrugorrian nengoalaco, eta ezcutatu naiz.

11 Ceñari efan cion: ¿Norc bada eracutfi dizu larrugorrian ceundela, baicican jan dezulaco ez jateco aguindu nizun zuaitzetic?

12 Erantzun cion Adanec: Laguntzat eman didazun andreac, eman dit zuaitzetic, eta jan det.

13 Eta efan cion Jaun Jaungoicoak emacumeari: ¿Cergatic au eguin dezu? Berac erantzun cion: Sugueac engañatu nau, eta jan det.

14 Eta efan cion Jaun Jaungoicoac fugueari: Au eguin decalaco, madaricatua izango aiz abere, eta lurreco pifti guztien artean: ire fabelaren gañean ibillico aiz, eta lurra jango dec ire bicico egun guztietan.

15 Neronec ipiñico ceticat etfaitafunac ire eta emacumearen artean, eta ire arrazaren eta aren jatorriaren artean: berac lertuco dic ire burua, eta i ibillico aiz aren orpoaren celatan.

16 Emacumeari ere efan cion: Ugarituco ditut zure nequeac, eta aurguiteco zauden demboraco zure oñaceac: miñez aurrac eguingo dituzu, eta gongo cera guizonaren mendean, eta onec aguinduko dizu.

17 Adani berriz efan cion: Aditu dezulaco zure emaztearen boza, eta jan dezulaco ez jateco aguindu nizun zuaitzetic, madaricatua izan bedi lurra zu gatic: neque andiaquin ateraco dezu bera gandic janaria zure bicitzaco egun guztietan.

18 Arantzac eta fafilarrac emango dizquitzu, eta jango dezu lurreco belarra.

19 Zure arpeguico icerdiarequin jango dezu oguia, itzuli zaitecen bitartean lurrera nondic izan ciñan artua: ceren autsa cera, eta auts biurtuco cera.

20 Eta Adanec bere emazteari ipiñi cion icena da Eva: bici guztien ama izango zalaco.

21 Baitaere eguin ciezten Jaun Jaungoicoac Adani eta bere emazteari larruzco tunicac, eta jantzi ciezten:

22 Eta efan zuen: Ona non Adan eguin dan gu becelaco bat, daquiela ona eta gaitza: orain jafo ez dezan bere efcua, eta artu ere ez dezan bicitzaco zuaitzetic, eta jan ez dezan, eta bici ez dedin beti,

23 Bota zuen Jaun Jaungoicoac atfeguiñezco paradifutic, landu cezan lurra, ceñetatic izan zan eguiña.

24 Eta bota zuen Adan: eta ipiñi zuen atfeguiñezco paradifuaren aurrean Querubin bat

fuzco ezpata jiracor batequin, bicitzaco zuaitzeraco bidea zaitu cezan.

## IV Cap.

ADANEC ordea ezagutu zuen bere emazte Eva: au aurguiteco jarri zan eta eguin zuen Cain, efaten zuela: Izan det aurfeme bat Jaungoicoaren graciaz.

2 Eta bigarrenez eguin zuen onen anaya Abel. Abel izan zan artzaya, eta Cain necazaria.

3 Eta guertatu zan igaroric egun afco efqueintzea Cainec Jaunari doayac lurreco frutuetatic.

4 Abelec ere efqueñi ciozcan bere artaldeco lenenetatic, eta beren guicenenetatic: eta beguiratu cion Jaungoicoac oniritziz Abeli, eta bere efqueñiai.

5 Caini berriz, eta bere efqueñiai etzien beguiratu oniritziz: eta chit aferratu zan Cain, eta jarri zan arpeguia beerontz zuela.

6 Eta efan cion Jaunac: ¿Cergatic aferratu cera? ¿eta cergatic zure arpeguia dago beerontz beguira?

7 ¿Ongui eguiten badezu, ez al dezu artuco ordaña? ¿Gaizqui eguiten badezu berriz, ez al da bereala jarrico pecatua zure beguien aurrean? Baña

bere naya egongo da zure mendean, eta zuc aguinduco diozu.

8 Eta efan cion Cainec bere anai Abeli: Goacen campora. Eta campoan ceudela, jaiqui zan Cain bere anai Abelen contra, eta ill zuen.

9 Eta Jaunac efan cion Caini: ¿Non da Abel zure anaya? Ceñac erantzun zuen: Ez daquit: ¿Nere anayaren gordetzallea al naiz ni?

10 Eta efan cion Jaunac: ¿Cer eguin dezu? Zure anayaren odola deadarrez dagoquit lurretic.

11 Orain bada madaricatua izango cera lurraren gañean, ceñac idiqui zuen bere aoa, eta artu zuen zure anayaren adola zure efcutic.

12 Landutzen dezunean, ez dizquitzu emango bere frutuac: toquiz toqui ta iguefi bicico cera lurraren gañean.

13 Eta efan cion Cainec Jaunari: Andiagoa da nere gaiztaqueria, barcacioaren diña ni izateco baño.

14 Ona non botatzen nazun gaur lur onetatic, eta ezcutatuco naiz zure beguietatic, eta ibillico naiz toquiz toqui iguefi lurrean: arquitzen nauen edoceñec bada, illco nau.

15 Eta efan cion Jaunac: Iñolaere ez da ala izango: baicic baldin iñorc illco balu Cain, zazpi bider gueyago caftigatua izango da. Eta ipiñi cion Jaunac Caini feñale bat ill etzezan arquitzen zuenac.

16 Eta ateraric Cain Jaunaren aurretic, bici izan zan iguefi lurrean Edenen fortaldeco aldamenean.

17 Ezagutu zuen bada Cainec bere emaztea, ceñ aurguiteco jarri zan, eta eguin zuen Enoc: eta eguin zuen erri bat, eta ipiñi cion bere femearen icena, Enoc.

18 Eta Enoc gandic izan zan fortua Irad, eta Irad gandic izan zan fortua Maviael, eta Maviael gandic izan zan fortua Matufael, eta Matufael gandic izan zan fortua Lamec.

19 Onec artu cituen bi emazte: bataren icena da Ada, beftearen icena Sela.

20 Eta Ada gandic izan zan fortua Jabel, ceñ izan zan echoletan bici diranen, eta artzayen aita.

21 Eta bere anayaren icena da Jubal: au izan zan citaran eta organuan cantatzen dutenen aita.

22 Sela gandic ere fortua izan zan Tubalcain: au izan zan mallucaria eta cobrezco eta

burnizco lan guztien eguillea. Tubalcainen arreba berriz, Noema.

23 Eta efan cien Lamequec bere emazte Ada eta Selari: Aditu ezazute nere boza, Lamequen emazteac, entzun itzatzute nere itzac: Neronec ill det guizon bat eguin nion zauri batequin, eta gaztecho bat eman nion colpearequin.

24 Cain iltzen duena izango bada castigatua zazpi bider gueyagorequin: Lamec iltzen duena izango da iruroguei ta amar zazpi bider.

25 Adanec oraindic ezagutu zuen bere emaztea: eta eguin zuen femea, eta ipiñi cion icena da Set, efaten zuela: Eman dit Jaungoicoac befte feme bat Cainec ill zuen Abel gatic.

26 Baita Seti ere jayo citzayon feme bat, ceñi deitu cion Enos: au afi zan Jaunaren icenari otfeguiten.

## V. Cap.

AU da Adanen jatorria. Jaungoicoac guizona eguin zuen egunean, Jaungoicoaren antzera eguin zuen.

2 Guizafemea eta emacumea eguin, eta bedeincatu cituen: eta eguiñac izan ciran egunean, ipiñi cien icena Adan.

3 Bici izan zan Adan eun eta oguei ta amar urtean: eta izan zuen feme bat bere antz eta iduricoa, eta ipiñi cion icena da Set.

4 Adanen egunac, Set izan zuen ezquero, izan ciran zortzireun urte: eta izan cituen femeac eta alabac.

5 Eta ala Adan bicitu zan dembora guztia, izan zan bederatzireun eta oguei ta amar urte, eta ill zan.

6 Eta Set bicitu zan eun eta boft urtean, eta izan zuen Enos.

7 Set, Enos izan zuen ezquero, bicitu zan zortzireun eta zazpi urtean, eta izan cituen femeac eta alabac.

8 Eta Seten egun guztiac izan ciran bederatzireun eta amabi urte, eta ill zan.

9 Enos bicitu zan laroguei ta amar urtean, eta izan zuen Cainan.

10 Au jayo ezquero bicitu zan zortzireun eta amaboft urtean, eta izan cituen femeac eta alabac.

11 Eta Enofen egun guztiac izan ciran bederatzireun eta bost urte, eta ill zan.

12 Bici ere zan Cainan iruroguei ta amar urtean, eta izan zuen Malaleel.

13 Eta bicitu zan Cainan, Malaleel izan zuen ezquero, zortzireun eta berroguei urtean, eta izan cituen femeac eta alabac.

14 Eta Cainanen egun guztiac etorri ciran izatera bederatzireun eta amar urte, eta ill zan.

15 Eta Malaleel bicitu zan iruroguei ta boft urtean, eta izan zuen Jared.

16 Eta Jared izan ezquero, bici izan zan Malaleel zortzireun eta oguei ta amar urtean: eta izan cituen femeac eta alabac.

17 Eta Malaleelen bici guztia izan zan zortzireun eta laroguei ta amar urtecoa, eta ill zan.

18 Eta bicitu zan Jared eun eta iruroguei ta bi urtean, eta izan zuen Enoc.

19 Eta bicitu zan Jared, Enoc izan zuen ezquero, zortzireun urte, eta izan cituen femeac eta alabac.

20 Eta ala Jareden bici guztia izan zan bederatzireun eta iruroguei ta bi urtecoa, eta ill zan.

21 Eta bicitu zan Enoc iruroguei ta bost urtean, eta izan zuen Matufalen.

22 Eta Enoc ibilli zan Jaungoicoarequin: eta bicitu zan, Matufalen izan zuen ezquero, irureun urte, eta izan cituen femeac eta alabac.

23 Eta Enoquen egun guztiac izan ciran irureun eta iruroguei ta boft urte.

24 Eta jarraitu cion Jaungoicoarequin ibilteari, eta ezcutatu zan: ceren Jaungoicoac eraman zuen.

25 Matufalen bici izan zan eun eta laroguei eta zazpi urtean, eta izan zuen Lamec.

26 Eta bicitu zan Matufalen, Lamec izan zuen ezquero, zazpireun eta laroguei ta bi urte, eta izan cituen femeac eta alabac.

27 Eta Matufalenen egun guztiac allegatu ciran bederatzireun eta iruroguei ta bederatzi urtera, eta ill zan.

28 Eta bicitu zan Lamec eun eta laroguei ta bi urte, eta izan zuen feme bat:

29 Eta oni deitu cion Noe, efaten zuela: Onec gozatuco gaitu gure efcuen neque eta lanetan, Jaungoicoac madaricatu zuen lurrean.

30 Eta bicitu zan Lamec, Noe izan zuen ezquero, bofteun eta laroguei ta amaboft urtean, eta izan cituen femeac eta alabac.

31 Eta Lamequen egun guztiac izan ciran zazpireun eta iruroguei ta zazpi urte, eta ill zan. Noec berriz bofteun urte cituenean, izan cituen Sem, Cam eta Jafet.

## VI Cap.

ASI ezquero bada ugaritutzen guizonac lurraren gañean, eta iduquiric alabac,

2 Icufiric Jaungoicoaren femeac guizonen alabac ederrac cirala, artu cituzten emaztetzat onguien ceritzenac.

3 Eta efan zuen Jaungoicoac: Ez du iraungo beti nere efpirituac guizonagan, araguicoya dalaco: eta bere egunac izango dira eun eta oguei urte.

4 Egun ayetan berriz baciraden goyanteac* lurraren gañean. Ceren nafi ciran ezquero Jaungoicoaren femeac guizonen alabaquin, eta oyec aurrac eguin cituzten, oyec dira anciñaco demboretaco errutfu ofpe andico guizonac.

5 Icufiric berriz Jaungoicoac andia zala guizonen gaiftaqueria lurrean, eta bere biotzeco

* giganteac.

gogoracio guztiac ceudela macurtuac gaitzera dembora guztian,

6 Damutu citzayon guizona eguin izatea lurrean. Eta biotz barrendico naigabe batequin,

7 Quenduco det, efan zuen, lurraren gañetic eguin nuen guizona, guizona gandic abereetaraño, arraftacaritic ceruco egaztietaraño: ceren damu det berac eguiña.

8 Noec berriz arquitu zuen onguinaya Jaungoicoaren aurrean.

9 Oyec dirade Noeren femeac: Noe guizon ona ta obea izan zan bere demboran, Jaungoicoarequin ibilli zan.

10 Eta izan cituen iru feme, Sem, Cam eta Jafet.

11 Lurra berriz cegoan Jaungoicoaren aurrean uftelduta, eta gaiztaqueriz beteric.

12 Icufiric bada Jaungoicoac lurra cegoala uftelduric (ceren lurraren gañean bici ciran guztiac gaiztotu ciran),

13 Efan cion Noeri: Allegatua da neronec icentatu nuen dembora bucatzeco guizon guztiac: betea da lurra beren gaiztaqueriz, eta neronec galduco ditut lurrarequin.

14 Eguin ezazu zuretzat cucha bat zur garlopatuaquin: guelachoac eguingo dituzu cuchan, eta betunarequin igortzi ezazu barrendican eta campotican.

15 Eta onela eguingo dezu: Cucharen luceera izango da irureun befo, zabalera berroguei ta amar befo, eta beraren altuera oguei ta amar befo.

16 Eguingo diozu cuchari leyo bat, eta bere galyurra bucatuco dezu befo batean: cucharen atea berriz ipiñico dezu aldamenetic: eta eguingo dituzu beretan guelac eta iru bicitza.

17 Eta ona nic ecarrico ditut lurraren gañera ugoldeco urac, iltzeco ceruaren azpian bicitzaco efpiritua duen aragui guztia: lurrean dauden gauza guztiac galduco dirade.

18 Baña ni zurequin elcartuco naiz: eta fartuco cera cuchan zu, eta zurequin zure femeac, zure emaztea, eta zure femeen emazteac.

19 Eta fartuco dituzu cuchan abere mota guztietatic bi, arra ta emea, zurequin bici ditecen.

20 Egaztietatic bere motaren araura, eta zamarietatic bere motan, eta lurreco arraftacari guztietatic bere motaren araura: bacoitzetic bi fartuco dira zurequin, bici ditezquen.

21 Eramango dituzu bada zurequin jan al ditezquen janari guztiac, eta ipiñico dituzu zure bicitoquian: eta au izango da zuen, eta ayen janaria.

22 Eguin zuen bada Noec Jaungoicoac aguindu cion guztia.

## VII. Cap.

ESAN cion guero Jaunac: Sartu zaite cuchan zure echeco guztiaquin: ceren zu arquitu zaitut onic nere aurrean guizaldi onetan.

2 Abere garbi guztietatic artuco dituzu zazpiña, arra ta emea: abere loyetatic berriz biña, arra ta emea.

3 Eta orobat ceruco egaztietatic zazpiña, arra ta emea: iraun dezan bere caftac lur guztiaren gañean.

4 Ceren emendican zazpi egunera neronec eraguingo det euria lurraren gañean berroguei egunean eta berroguei gautan: eta galduco ditut lurraren gañean eguin nituen gauza guztiac.

5 Eguin zuen bada Noec Jaunac eguindu cion guztia.

6 Ceuzcan Noec feireun urte ugoldeco urac igo zutenean lurra ezcutatzeraño.

7 Eta fartu zan Noe cuchan ugoldeco urac gatic, eta berarequin bere femeac, bere emaztea, eta bere femeen emazteac.

8 Orobat abere garbi ta loyetatic, eta egaztietatic, eta lurraren gañean muguitzen diran guztietatic,

9 Sartu cizquion Noeri cuchan biña, arra ta emea, Jaunac Noeri aguindu cion becela.

10 Eta igaro ciradenean zazpi egun, ugoldeco urac igo zuten lurra ezcutatzeraño.

11 Noec feireun urte cituanean, bigarren illean, illaren amazazpigarren egunean, urratu ciran leice andico iturri guztiac, eta idiqui ciran ceruco uarcac:

12 Eta eguin zuen euria lurraren gañean berroguei egunean eta berroguei gautan.

13 Egun artaco epe icentatuan fartu ciran cuchan Noe, eta bere feme Sem, Cam eta Jafet; aren emaztea, eta bere femeen iru emazteac beraquin;

14 Berac eta abere guztiac beren moten araura, eta zamari guztiac beren moten araura, eta lurrean muguitzen dan guztia bere motan, eta egazti

guztiac beren moten araura, eta luma abere mota guztia, eta egoac dauzcan guztia.

15 Sartu ciraden Noe gana cuchara biña, bicitzaco efpiritua zuen aragui guztitic.

16 Eta fartu ciradenac, fartu ciraden arra ta emea aragui guztitic, Jaungoicoac aguindu cion becela: eta Jaunac ichi cion campoco aldetic.

17 Orduan etorri zan berroguei eguneco ugoldea lurraren gañera: eta aci ciran urac, eta eraman zuten cucha lurretic chit gora.

18 Ceren urac chit andizquiro aci ciran: eta ezcutatu zuten lurraren gañean cegoen guztia: cucha berriz cebillen uren gañean.

19 Eta urac igo zuten chit gueyegui lurraren gañean: eta eftaliac izan ciran mendiric altuen guztiac ceru guztiaren azpian.

20 Amaboft befo altuagora allegatu zan ura eftaliric ceuzcan mendiac baño.

21 Eta galdu zan lurraren gañean muguitzen zan aragui guztia, egaztiena, abereena, piftiena, eta lurraren gañean biurca dabiltzen arraftacari guztiena: guizonac guztiac,

22 Eta lurraren gañean bicitzaco afnafa duten guztiac, ill ciran ;

23 Eta defeguin cituen lurraren gañean bici ciran guztiac, guizona gandic abereraño, bai arraftacariac eta bai ceruco egaztiac: eta lurretic izan ciran arrafatuac: bacarric guelditu zan Noe, eta berarequin cuchan ceudenac.

24 Eta egon ciran urac lurraren gañean eun eta berroguei ta amar egunean.

VIII. Cap.

**O**ROITURIC berriz Jaungoicoa Noez, eta berarequin cuchan cegoen abere guztiaz, eta zamari guztiaz, atera zuen aicea lurraren gañean, eta guchitu ciran urac.

2 Eta ichi ciraden leiceco iturriac, eta ceruco uarcac: eta galeraci citzayen jechiera ceruco euriai.

3 Eta biurtu ciran urac lurretic cijoacela eta cetoztela: eta afi ciran guchitzen igaroric eun eta berroguei ta amar egun.

4 Eta guelditu zan cucha zazpigarren illean, illaren oguei ta zazpigarren egunean, Armeniaco mendien gañean.

5 Urac berriz bacijoacen eta guchitzen ciran amargarren illeraño: ceren amargarren illean, illaren lenengo egunean, aguertu ciran mendien tontorrac.

6 Eta igaroric guero berroguei egun, idiquiric Noec eguin zuen cuchaco leyoa, belea bialdu zuen:

7 Au ateraric, etzan itzuli, urac lurraren gañean legortu arteraño.

8 Onen ondoren bialdu zuen ufoa ere, icufi cezan aitu al ciraden urac lurraren gañean.

9 Ez arquituric onec non ipiñi bere oña, itzuli zan bera gana cuchara: ceren oraindican urac ceuden lur guztiaren gañean: eta luzatu zuen efcua, eta elduric fartu zuen cuchan.

10 Ichodonic oraindican befte zazpi egun, berriz bialdu zuen ufoa cuchatic.

11 Bera berriz etorri zan bera gana arratfaldean, cecarrela bere mocoan oliboaren adar bat ofto berdeaquin. Ezagutu zuen bada Noec aldeguin zutela urac lurraren gañetic.

12 Ichodon zuen alaere befte zazpi egun: eta bota zuen ufoa: au etzan biurtu gueyago bera gana.

13 Seireun eta lenengo urtean bada, lenengo illean, illaren lenengo egunean, aldeguin zuten urac lurraren gañetic: eta idiquiric Noec cucharen tapa, beguiratu, eta icufi zuen leortu zala lurraren gaña.

14 Bigarren illean, illaren oguei ta zazpigarren egunean, leortu zan lurra,

15 Orduan itzeguin cion Jaungoicoac Noeri, efaten zuela:

16 Atera zaite cuchatic, zu eta zure emaztea, zure femeac eta zure femeen emazteac zurequin.

17 Atera itzazu ere zurequin dauzcazun abere guztiac, cafta guzticoac, naiz egaztiac, naiz piftiac, eta lurraren gañean biurca dabiltzan arraftacari guztiac, eta atera zaitezte lurraren gañera: aci eta ugaritu zaitezte bere gañean.

18 Irten zan bada Noe, eta bere femeac, aren emaztea, eta bere femeen emazteac, berarequin.

19 Baitaere irten ciran cuchatic abere guztiac, zamariac, eta lurraren gañean biurca dabiltzan arraftacariac beren moten araura.

20 Eta eguin cion Noec aldare bat Jaunari: eta arturic abere eta egazti garbi guztietatic, efqueñi ciozcan ofrendac aldarearen gañean.

21 Eta ufai eguin zuen Jaunac ufai gozoa, eta efan zuen: Iñolaere ez det gueyago madaricatuco lurra guizonac gatic: ceren guizonaren biotzaren centzuna eta gogoa gaitzera macurtuac daude bere gaztetafunetic: ez det bada

gueyago caftigatuco anima bici guztia eguin dedan becela.

22 Mundua mundu dan artean, ereiteac eta itaiteac, otzac eta beroac, udac eta neguac, gauac eta egunac, elcarri jarraituco diezte.

IX. Cap.

GUERO bedeincatu cituen Jaungoicoac Noe eta bere femeac. Eta efan cien: Aci, eta ugaritu zaitezte, eta bere ezazute lurra.

2 Eta zuen izu eta icara izan bedi lurreco abere guztien gañean, eta ceruco egazti guztien gañean, lurraren gañean muguitzen diran guztiaquin: itfafoco arrai guztiac zuen efcuetan paratuac daude.

3 Eta muguitzen eta bici dan guztia, izango da zuen janaria: baratzaco berdeac becela eman nizuten gauza guztiac;

4 Bacarric ez dezutela jango araguia odolarequin.

5 Ceren billatuco det zuen animen odola abere guztien efcutic: eta billatuco det guizonaren anima, guizonaren efcutic, guizafemearen eta bere anayaren efcutic.

6 Ixuria izango da guizonaren odola ixurtzen duen edoceñen odola: ceren guizona eguiña izan zan Jaungoicoaren antzera.

7 Zuec berriz aci eta ugaritu, eta fartu zaitezte lurraren gañean, eta bete ezazute.

8 Oyec ere efan ciezten Jaungoicoac Noeri, eta berarequin bere femeai:

9 Ona nic eguingo det nere elcartafuna zuequin, eta zuen jatorriarequin zuen ondoren:

10 Eta zuequin dan anima bici guztiarequin, naiz egaztiaquin, naiz cuchatic atera ciran lurreco zamari eta abere guztiaquin, eta lurreco pifti guztiaquin.

11 Eguingo det nere elcartafuna zuequin, eta iñolaere gueyago ez da illa izango aragui guztia ugoldeco uraquin; ez da ere izango emendic aurrera lurra galtzen duen ugolderic.

12 Eta efan zuen Jaungoicoac: Au da nere eta zuen, eta zuequin arquitzen dan anima bici guztien artean betico guizaldietaraco eguiten dedan elcartafunaren feñalea.:

13 Ipiñico det nere uztaya odeyetan, eta izango da nere arteco eta lurraren arteco elcartafunaren feñalea.

14 Eta eftalitzen dedanean cerua odeyaquin, aguertuco da nere uztaya odeyetan:

15 Eta oroituco naiz zuequin; eta araguia bicitzen duen anima bici guztiarequin dedan nere elcartafunaz: eta ez da berriz izango ugoldeco uric aragui guztia galtzeco.

16 Eta egongo da uztaya odeyetan, eta icufico det, eta oroituco naiz Jaungoicoaren eta lurraren gañean dan aragui guztiaren anima bici guztiaren artean eguiña dagoen betico elcartafunaz.

17 Eta efan cion Jaungoicoac Noeri: Au da nere eta lurraren gañean bici dan aragui guztiaren artean eguiña dagoen elcartafunaren feñalea.

18 Noeren feme, cuchatic atera ciranac ciraden bada, Sem, Cam eta Jafet: Cam au da Canaanen aita.

19 Iru oyec dirade Noeren femeac: eta oyetatic zabaldu ciran guizon guztiac lur guztiaren gañean.

20 Eta afi zan Noe guizon necazaria lurra landutzen, eta ipiñi zuen mafti bat.

21 Eta edanic ardoa orditu zan, eta larrugorrian guelditu zan bere bicilecuaren erdian.

22 Cam Canaanen aitac au icufiric, au da, bere aitaren lotfariac ceudela aguirian, ateraric campora, efan cien bere bi anayai.

23 Sem eta Jafetec berriz capa ipiñi zuten beren forbaldetan, eta ibilliric atzerontz, eftali cituzten bere aitaren lotfariac: beren arpeguiac itzuliac ceuden, eta aitaren lotsariac etzituzten icufi.

24 Eta efnaturic Noe ordiqueritic, jaquin zuenean cer eguin cioten bere feme chiquiagoac,

25 Efan zuen: Madaricatua izan bedi Canaan; bere anayen mendecoen mendecoa izango da.

26 Efan zuen ere: Bedeincatua izan bedi Jauna Semen Jaungoicoa; Canaan izan bedi bere mendecoa.

27 Zabaldu beza Jaungoicoac Jafet, eta bici bedi Semen bicilecuetan; eta Canaan izan bedi bere mendecoa.

28 Bici izan zan Noe ugoldea igarota irureun eta berroguei ta amar urtetan.

29 Eta ala bere egun guztiac izan ciran bederatzireun eta berroguei ta amar urte: eta ill zan.

X. Cap.

**O**YEC dirade Noeren femeen, Sem, Cam eta Jafeten jatorriac: eta jayo citzayezten femeac ugoldearen ondoren.

2 Jafeten femeac: Gomer, eta Magog, eta Madai, eta Javan, eta Tubal, eta Mofoc, eta Tiras.

3 Gomerren femeac: Afcenez, eta Rifat, eta Togorma.

4 Javanen femeac: Elifa eta Tarfis, Cetim eta Dodanim.

5 Oyec partitu cituzten jendeen ugarteac beren alderrietan, bacoitzac bere izcuntzaren eta beren familien araura beren jendeetan.

6 Camen femeac: Cus, eta Mefraim, eta Fut, eta Canaan.

7 Cufen femeac: Saba, eta Hevila, eta Sabata, eta Regma, eta Sabataca. Regmaren femeac: Saba eta Dadan.

8 Eta Cus gandic izan zan fortua Nemrod: au afi zan izaten alduna lurrean,

9 Eta zan eiztari indartfua Jaunaren aurrean. Emendic etorri zan efaera: Nemrod becela eiztari indartfua Jaunaren aurrean.

10 Eta bere erreinuaren afiera izan zan Babilonia, eta Arac, eta Acad, eta Calane, Senaarco lurrean.

11 Erri artatic irten zan Afur, eta eguin cituen Ninive, eta errico plazac, eta Cale.

12 Baitaere Refen Ninive eta Caleren artean: au da erri andia.

13 Eta Mefraimec izan cituen Ludim, eta Anamin, eta Laabim, eta Neftuim,

14 Eta Fetrufim, eta Cafluim: ceñetatican atera ciran filifteotarrac eta caftoreotarrac.

15 Canaanec berriz izan zuen Sidon bere lenenfortua, Heteo,

16 Jebufeo, eta Amorreo, Gergefeo,

17 Heveo, eta Araceo: Sineo,

18 Eta Aradio, Samareo, eta Amateo: eta emendic zuten jatorria canaantarren erriac.

19 Eta Canaanen mugac ciran datoztenac becela Sidondic Gerarara Gaza artean, fartu artean Sodoman eta Gomorran, eta Adaman, eta Seboimen, Lefa artean.

20 Oyec dirade Camen femeac beren fenitarte, eta izcuntza, eta jatorri, eta erri eta jendeen araura.

21 Sem gandic ere, Heberren feme guztien aita gandic, Jafeten anai nagufia gandic, jayo ciran femeac.

22 Semen femeac: Elam, eta Afur, eta Arfaxâd, eta Lud, eta Aram.

23 Aramen femeac: Us, eta Hul, eta Geter, eta Mes.

24 Arfaxâdec berriz izan zuen Sale, ceña gandic jayo zan Heber.

25 Eta Heberri jayo citzayozcan bi feme: bataren icena Faleg, bere egunetan lurra partitu zalaco: eta bere anayaren icena JeEtan.

26 JeEtan onegandic izan zan fortua Elmodad, eta Salef, eta Afarmot, eta Jare,

27 Eta Aduram, eta Uzal, eta Decla,

28 Eta Ebal, eta Abimael, Saba,

29 Eta Ofir, eta Hevila, eta Jobab: oyec guztioc dirade JeEtanen femeac.

30 Eta oyen bicilecua izan zan Mefatic fortaldeco mendi Sefarrerańo.

31 Oyec dirade Semen femeac beren fenitarte, eta izcuntza, eta errien araura, beren jendeetan.

32 Oyec Noeren familiac beren erri eta jendeen araura. Oyetatic zabaldu ciran jendeac lurrean ugoldearen ondoren.

## XI. Cap.

ZAN berriz lurra izqueta batecoa, eta itz berberetacoa.

2 Eta atera ciradenean fortaldetic, arquitu zuten celai bat Senaarco lurrean, eta guelditu ciran an egotez.

3 Eta efan cien elcarri: Atozte, eguin ditzagun adrilluac, eta egofi ditzagun furtan. Eta baliatu ciran adrilluaquin arrien toquian, eta betunarequin careorrearen toquian:

4 Eta efan zuten: Atozte, eguin ditzagun guretzat erri, eta torre bat, erpiñarequin cerurańo allegatzen dana: eta eman dizayogun gure icenari ofpea mundu guztitic zabaldu gaitecen bańo lenago.

5 Eta jechi zan Jauna Adanen femeac eguiten zuten erri eta torrea icuftera,

6 Eta efan zuen: Ona, bat da erria, eta izqueta bat dute guztiac: eta afi dirade au eguiten, eta ez dirade atzeratuco beren gogoetatic, bucatu ditzaten bitartean.

7 Atozte bada, jechi gaitecen, eta nafi dezagun an beren izqueta, aditu ez dezan batac beftearen itza.

8 Eta onela zabaldu cituen Jaunac toqui artatican mundu guztitic, eta utzi cioten erria eguiteari.

9 Eta orregatic icena deitu citzayon Babel, ceren an izan zan nafia mundu guztico izcuntza: eta andican banatu cituen Jaungoicoac erri guztien gañean.

10 Au da Semen jatorria: Sem zan eun urtecoa Arfaxâd izan zuenean, urte bi ugoldearen ondoren.

11 Eta bici izan zan Sem, Arfaxâd izan zuen ezquero, bofteun urtetan: eta izan cituen femeac eta alabac.

12 Eta Arfaxâd bici izan zan oguei ta amaboft urtetan, eta izan zuen Sale.

13 Eta bici izan zan Arfaxâd, Sale izan zuen ezquero, irureun eta iru urtetan: eta izan cituen femeac eta alabac.

14 Eta bici izan zan Sale oguei ta amar urtetan, eta izan zuen Heber.

15 Eta bici izan zan Sale, Heber izan zuen ezquero, laureun eta iru urtetan: eta izan cituen femeac eta alabac.

16 Eta bici izan zan Heber oguei ta amalau urtetan, eta izan zuen Faleg.

17 Eta bici izan zan Heber, Faleg izan zuen ezquero, laureun eta oguei ta amar urtetan: eta izan cituen femeak eta alabak.

18 Eta bici izan zan Faleg oguei ta amar urtetan: eta izan zuen Reu.

19 Eta bici izan zan Faleg, Reu izan zuen ezquero, berreun eta bederatzi urtetan: eta izan cituen femeac eta alabac.

20 Eta bici izan zan Reu oguei ta amabi urtetan, eta izan zuen Sarug.

21 Eta bici izan zan Reu, Sarug izan zuen ezquero, berreun eta zazpi urtetan: eta izan cituen femeac eta alabac.

22 Eta bici izan zan Sarug oguei ta amar urtetan, eta izan zuen Nacor.

23 Eta bici izan zan Sarug, Nacor izan zuen ezquero, berreun urtetan: eta izan cituen femeac eta alabac.

24 Eta bici izan zan Nacor oguei ta bederatzi urtetan, eta izan zuen Tare.

25 Eta bici izan zan Nacor, Tare izan zuen ezquero, eun eta emeretzi urtetan: eta izan cituen femeac eta alabac.

26 Eta bici izan zan Tare iruroguei ta amar urtetan, eta izan cituen Abram, eta Nacor, eta Aran.

27 Eta au da Tareren jatorria: Tarec izan cituen Abram, Nacor eta Aran. Eta Aranec izan zuen Lot.

28 Eta ill zan Aran bere aita Tare baño lenago, bere jayoterrian, Ur Caldeacoan.

29 Eta Abramec eta Nacorrec artu cituzten emazteac: Abramen emaztearen icena, Sarai: eta Nacorren emaztearen icena, Melca, Aran Melcaren, eta Jefcaren aitaren alaba.

30 Eta Sarai zan foilla, eta etzuen aurric.

31 Eta Tarec artu cituen bere feme Abram, eta Lot, bere feme Aranen femea, eta Sarai bere erraña, bere feme Abramen emaztea, eta atera cituen ur Caldeacotic, joateco Canaango lurrera: eta etorri ciran Haraneraño, eta an bici izan ciran.

32 Eta izan ciran Tareren egunac berreun eta boft urte, eta Haranen ill zan.

XII. Cap.

ETA efan cion Jaunac Abrami: Atera zaite zure erritic, eta zure aideetatic, eta zure aitaren achetic, eta atoz eracutfico dizudan lurrera.

2 Eta eguingo zaitut jende andi baten buru, eta bedeincatuco zaitut, eta chit alchatuco det zure icena, eta izango cera bedeincatua.

3 Bedeincatuco ditut zu bedeincatutzen zaituztenac, eta madaricatuco ditut zu madaricatutzen zaituztenac, eta zugan izango dirade bedeincatuac lurreco etorqui guztiac.

4 Atera zan bada Abram Jaunac aguindu cion becela, eta Lot joan zan berarequin: iruroguei ta amaboft urtecoa zan Abram atera zanean Harandic.

5 Eta eraman zuen Sarai bere emaztea, eta Lot bere anayaren femea, eta irabaci zuten acienda guztia, eta Haranen eguin cituzten animac: eta atera

ciran joateco Canaango lurrera. Eta ara allegatu ciradenean,

6 Igaro zuen Abramec lurra Siquemgo toquiraño, ibar Arguitfuraño: eta canaantarra cegoen orduan lurrean.

7 Eta aguertu citzayon Jauna Abrami, eta efan cion: Zure jatorriari emango diot lur au. Eta eguin cion an aldare bat aguertu citzayon Jaunari.

8 Eta igaroric andic Betelen fortaldean cegoen mendira, zabaldu zuen an bere denda, fartaldetic zuela Betel, eta fortaldetic Hai: an ere eguin cion Jaunari aldare bat, eta ots eguin cion bere icenari.

9 Eta jarraitu cion Abramec ibilteari, eta joateari aurrera egoerontz.

10 Eta izan zan erri artan gofete bat: eta jechi zan Abram Egiptora, an egoteco bideafcoa becela: ceren erri artaco gofetea chit andia zen.

11 Eta Egipton fartzeco zorian cegoenean, efan cion Sarai bere emazteari: Ezagutu det andre ederra cerala:

12 Eta egiptoarrac icuften zaituztenean, efango dutela: Bere emaztea da: eta ni illco naute, eta zu gordeco zaituzte.

13 Erregututzen dizut bada, arren efan dezazula, nere arreba cerala, ongui artua izan nadin zure amorioa gatic, eta biciric guelditu nadin zure beguirunez.

14 Sartu zaneco bada Abram Egipton, icufi zuten egiptoarrac emacumea chit ederra zala.

15 Eta andizquiac adiraci cioten Faraoni, eta alabatu zuten bere aurrean: eta izan zan eramana emacumea Faraonen echera.

16 Eta beraren beguirunez ongui tratatu zuten Abram: eta izan cituen ardiac eta idiac, eta aftoac, eta mirebeac, eta aftaemeac, eta gameluac.

17 Baña Jaunac caftigatu zuen Faraon, eta bere echea gaitzete chit andiaquin, Sarai Abrahamen emaztea gatic.

18 Eta ots eguin cion Faraonec Abrami, eta efan cion: ¿Cer da nerequin eguin dezun au? ¿cergatic ez didazu aguertu zure emaztea dala?

19 ¿Cer gauza gatic efan dezu zure arreba dala, artu nezan nere emaztetzat? Orain bada ona zure emaztea, artu ezazu, eta zoaz.

20 Eta Faraonec aguindu cien bere jendeai Abram zaitzeco: eta lagundu ciezten berari, eta bere emazteari, ceuzcaten gauza guztiaquin.

## XIII. Cap.

IGO ciran bada Abram Egiptotic, bera eta bere emaztea, eta ceuzcan gauza guztiac, eta Lot berarequin, egoeco aldamenera.

2 Eta zan chit aberatfa urrearen eta cillarraren dirutornean.

3 Eta biurtu zan etorri zan bidetic, egüerditic Betelerontz, Betel eta Hairen bitartean leen bere denda jarri zuen toquiraño:

4 Leen eguin zuen aldarearen lecura, eta an ots eguin cion Jaunaren icenari.

5 Baitaere Abramequin cegoen Lotec, ceuzcan artaldeac, eta abereac, eta dendac.

6 Eta ecin cabitu cituzten lurrac, elcarrequin bicitzeco: ceren beren acienda zan andia, eta ecin bici citezquen toqui batean.

7 Argatic errierta izan zan Abramen eta Loten talde zaitzalleen artean. Eta dembora artan canaantarrac eta ferezeotarrac bici ciraden lur artan.

8 Efan cion bada Abramec Loti: Ez bedi, arren, izan erriertaric nere eta zure artean, eta nere artzayen eta zure artzayen artean: ceren anayac gueran.

9 Ona emen non dezun lur guztia zure aurrean: erregututzen dizut, arren aldeguin dezazula ni gandic: ezquerrera joaten bacera, nic artuco det efcuya: zuc efcuya autatzen badezu, ni joango naiz ezquerrera.

10 Alchaturic bada Lotec beguiac, icufi zuen Jordango erribera guztia, ceñ guztia zan erregatua, Jaunac defeguin cituen baño lenago Sodoma eta Gomorra, Jaunaren paradifua becela, eta Egipto becela Segorrera datoztenai.

11 Eta autatu zuen beretzat Lotec Jordango erribera, eta aldeguin zuen fortaldetic: eta berecitu ciran anayac bata beftea gandic.

12 Abram bici izan zan Canaango lurrean: eta Lot guelditu zan Jordanen aldamenean dauden errietan, eta bici izan zan Sodoman.

13 Sodomaco guizonac berriz ciran chit gaiztoac, eta pecatari chit andiac Jaunaren aurrean.

14 Eta efan cion Jaunac Abrami, Lotec bera gandic aldeguin zuen ezquero: Alchatu itzatzu zure beguiac, eta beguiratu ezazu orain zauden toquitic, ifarrera eta egoera, fortaldera eta fartaldera.

15 Icuften dezun lur guztia, emango dizut zuri eta zure jatorriari betico.

16 Eta eguingo det zure jatorria lurreco autsa becela: baldin guizonen batec contatu al badu lurreco autsa, zure jatorria ere contatu dezaque.

17 Jaiqui zaite, zoaz eta icufi ezazu lurra bere luceeran, eta zabaleran: ceren zuri emango dizut.

18 Jaforic bada Abramec bere denda, etorri zan eta bici izan zan Mambre ibarraren aldean, ceñ dagoan Hebronen: eta eguin cion an Jaunari aldare bat.

## XIV. Cap.

GUERTATU zan berriz dembora artan, Amrafel Senaarco erreguea, eta Arioc Pontoco erreguea, eta Codorlahomor elamtarren erreguea, eta Tadal jendeen erreguea,

2 Guerran aritzea Bara Sodomaco erreguearen contra, eta Berfa Gomorraco erreguearen contra, eta Senaab Adamaco erreguearen contra, eta Semeber Seboimgo erreguearen contra, eta Balaco erreguearen contra, au da Segor.

3 Oyec guztioc elcartu ciran Bafoco ibarrean, ceñ dan orain itfafo Gacia.

4 Ceren amabi urte ferbitu zuten Codorlahomor, eta amairugarrenean errebelatu citzayozcan.

5 Bera gatic amalaugarren urtean etorri zan Codorlahomor, eta berarequin ceuden erregueac: eta defeguin cituen rafaimtarrac Aftarotcarnaimen, eta beraquin zucimtarrac, eta emimtarrac Save Cariataimen,

6 Eta correotarrac Seirco mendietan, bacardadean dagoan Farango campoetaraño.

7 Eta biurtu ciran, eta etorri ciran Misfatco iturriraño, au da Cades: eta ondatu cituzten amaleEtarren aldeera guztia, eta Afafontamarren bici zan amorreotarra.

8 Eta atera ciran fodomatarren erreguea, eta Gomorracoa, eta Adamaco erreguea eta Seboimgo erreguea, baitaere Balaco erreguea, ceñ dan Segor: eta zucendu zuten guda beren contra Bafoco ibarrean:

9 Au da Codorlahomor elamtarren erreguearen, eta Tadal jendeen erreguearen, eta Amrafel Senaarco erreguearen, eta Arioc Pontoco erreguearen contra: lau erregue boften contra.

10 Eta Bafoco ibarrac ceuzcan betunezco putzu afco. Eta fodomatarren, eta Gomorraco

erregueac, igues eguin zuten, eta erori ciraden an: eta biciric guelditu ciranac, igo ciran mendira.

11 Eta eraman zuten fodomatarren eta Gomorraco acienda guztia, eta janari guztia, eta joan ciran:

12 Baitaere Lot, Abramen anayaren feme Sodoman bici zana, zuen guztiarequin.

13 Eta ona non igues eguin zuen batec, adieraci cion Abram hebreotar Mambre amorreotar Efcolen anai, eta Anerren anayaren ibarrean bici zanari: ceren oyec elcartu ciran Abramequin.

14 Aditu zuenean au Abramec, au da, Lot bere anaya arrapatua izan zala, contatu cituen irureun eta emezortzi bere echeco ferbitzari ariñca armatuac, eta jarraitu cien Daneraño.

15 Eta zabalduric lagunac, erafo cien gauaz: eta defeguin cituen, eta jarraitu cien Damafcoco ezquerrean dagoan Hobaraño.

16 Eta quendu ciezten acienda guztia, eta Lot bere anaya bere aciendarequin; baitaere emacumeac eta erria.

17 Eta atera citzayon bidera fodomatarren erreguea, biurtu zan ezquero, defeguiñic Codorlahomor, eta berarequin Saveco ibarrean, ceñ dan Erregueren ibarra, ceuden erregueac.

18 Melquifedec Salemgo erregueac berriz, ateraric oguia eta ardoa, ceren zan Jaungoico chit altuaren apaiza,

19 Bedeincatu zuen, eta efan zuen: Jaungoico chit altu cerua eta lurra eguin cituenac bedeincatua izan dedilla Abram:

20 Eta bedeincatua Jaungoico chit altua, ceñaren laguntafunarequin etfayac zure efcuetan daude. Eta eman ciozcan guztien amarrenac.

21 Efan cion berriz fodomatarren erregueac Abrami: Eman zazquidazu animac; gañeracoac artu itzatzu zuretzat.

22 Berac erantzun cion: Jafotzen diot nere efcua Jaun Jaungoico chit altu ceruaren eta lurraren jabeari,

23 Irazcayaren aritic oñetacoaren locarriraño, ez det ecerere artuco zureac diraden gauza guztietatic, efan ez dezazun: Nic aberaftu nuen Abram:

24 Gazteac jan cituzten gauzac, eta nerequin etorri ciraden guizonen, Aner, Efcol eta Mambreren parteac baicic: oyec artuco dituzte beren parteac.

XV. Cap.

ETA irago ezquero gauza oyec, Jaungoicoac itz eguin cion icufquizun batean Abrami, efaten ciola: Etzaite beldur izan, Abram; ni naiz zure gordetzallea, eta zure fari chit andia.

2 Eta efan zuen Abramec: Jaun Jaungoicoa, ¿cer emango didazu? Ni banoa aurric gabe: eta nere echeco morroinagufiaren femea da Damafcoco au, Eliezer.

3 Baita efan zuen Abramec: Ez didazun ezquero eman niri aurric: ona emen nere echean jayo dan mendeco au, da nere jabegaya.

4 Eta bereala itz eguin cion Jaunac, efaten zuela: Ez da au zure jabegaya: baicic zu gandic fortuco dana, ura iduquico dezu jabegaitzat.

5 Eta atera zuen campora, eta efan cion: Beguiratu ezazu cerura, eta contatu itzatzu izarrac, al baldin badezu. Eta efan cion: Onela izango da zure jatorria.

6 Siniftu cion Abramec Jaincoari, eta onera egoquia izan citzayon.

7 Eta efan cion: Ni naiz Ur Caldeacotic atera cindudan Jauna, emateco zuri lur au, eta izateco zu bere jabea.

8 Baña berac efan zuen: Jaun Jaungoicoa, ¿nondic ezagutu dezaquet beraren jabe izango naicela?

9 Eta erantzunaz Jaunac: Ar zadazu, efan zuen, iru urteco bei bat, eta iru urteco auntz bat, eta iru urteco ari bat; ufatortola bat ere eta ufo bat.

10 Berac arturic gauza guzti oyec, erdiratu cituen, eta ipiñi cituen erdi biac bata beftearen aurrean aldamen bietatic: egaztiac berriz etzituen ebaqui.

11 Eta jechi ciran egaztiac gorputz illen gañera, eta Abram cegoquien beguira.

12 Eta eguzquia fartzeco cegoala, erori zan Abramen gañera lo gogor bat, eta izu andi eta illun batec artu zuen.

13 Eta efana izan citzayon: Jaquin ezazu oraindandic guertatuco dala zure jatorria egotea arroztua berea ez dan lurrean, eta menderatuco dituzte, eta atsecabetuco dituzte laureun urtetan.

14 Alaere neronec juzgatuco det ferbituco duten jendea: eta oyen ondoren ateraco dirade aberaftafun andiaquin.

15 Zu berriz joango cera zure gurafoac gana paquean, eta izango cera obiratua zartza onean.

16 Eta laugarren guizaldian biurtuco dirade onera: ceren oraindican ez dira bete amorreotarren gaiztaqueriac oraingo demboraraño.

17 Eguzquia fartu zanean bada, etorri zan illuntafun andi bat, eta aguertu zan labe bat quea ceriola, eta fuzco lampara bat igarotzen zana abere erdiratuen artetic.

18 Egun artan eguin zuen Jaungoicoac elcartafuna Abramequin, efaten zuela: Zure ondocoai emango diet lur au Egiptoco ibaitican Eufrates ibai andiraño,

19 Cineotarrac, eta cenezeotarrac, cedmoneotarrac,

20 Eta hettarrac, eta ferezeotarrac, baitaere rafaimtarrac,

21 Eta amorreotarrac, eta canaantarrac, eta gergefeotarrac, eta jebuftarrac.

## XVI. Cap.